


HIRIAK BIZITZARAKO

Posted on 01/09/2015 by Naider



Medellin, abuztuaren 31n. Ekintzak hitzei jarraituz gero, modu positiboagoan gogoratuko dugun data horietako bat. Arrazoia munduko hiriburuetakoko 39 alkatek gure hiriak desberdintasun gutxiago izateko eta, era berean, klima-aldaketaren ondorioei erantzuteko gaitasun handiagoa izateko hartu zuten konpromisoan datza.

Esandakoaz gain, «aitzakiarik gabe» giza eskubideak, bakea eta askatasuna errespetatzea onartu dute alkateek.

"Bizirako hiriak" izena hartzen duen ekimena Medellínko alkatetzak zuzentzen du, 2013an munduko hiri berritzaileenaren saria irabazi zuen hiriak.

There are no comments yet.